




ZAPALDU ETA NAHI DUZUNA ESKURATU

Gel Hidroalkoholkoa edo eta gastronomiako beste edozein osagai isuritzeko dispentsadorea da PUSH UP IN.

**PERTSONALIZATZEKO
AUKERA!**

GANTXOA
Poltsak uzteko

PAPER ROLLOA



PEDALA
Produktuaren eskaera egiteko. Eskuak garbi mantentzeko bermea.

ZAKAR ONTZIA



*Eskuak beti
garbi!*



943665183

pushupin2020@gmail.com

La Salle etorbidea 24,
20140 Andoain, SS

@pushupin2020



Balio proposamena

Gure enpresak, gel-a, ketchup-a eta maionesarentzako banagailuak egingo ditu. Produktu honek salmenta handia izango duela iruditzen zaigu, gaur egungo helburua covid-aren hedapena geldiaraztea baita, gehien bat jende multzo handia dagoen lekuetan. Bestalde elikagai sektorean ere erabilera emango diogu.

- Gel-banagailua: modu honetan gel ontzia eskuz-esku erabiltzea ekiditen dugu.
- Ketchup eta maionesa banagailua: Covid-a amaituta ere gure produktuaren salmentak ziurtatzen ditugu.

Bestalde gaur egun daukagun konpetentziarekin alderatzen baldin badugu, esan dezakegu gure produktua **bertakoa** dela, eta fidagarriagoa dela beste edozein gel-pote baino, gure oinekin zapalduko dugulako pedala eta gertakizun horri esker, ez dugu beste pertsonen arrastorik izango, arrisku hori ekidituz.

Azkenik, enpresa inguruko komertzioetan lan egingo duenez bezeroaren eskaerak ondo asetu ditzakegu, egun gutxiren barruan produktua bezeroari entregatuz. Gainerako enpresak berriz, beste herrialde batzuetakoak dira, horregatik beraien produktuaren prezioa gurearena baina handiago izango da, aldi berean produktua iritsi arte gehiago itxaron beharko lukete.



Moldagarritasuna

Gel-a isurtzeaz gain, ketchup eta maionesaren erabilpenerako modifikatu dezakegu gure produktua, aldaketa batzuk eginez eta ezaugarri berriak jarriz, edozein kasuren aurrean irtenbide ezberdinak dauzkagu gure produktuarekin.

Aparatua saltzeaz gain, gel poteak, ketchup poteak baita maionesa poteak ere salduko ditugu. Bat agortu ondoren beste bat modu eroso batean erosi ahal izateko.

Diseinu polita duenez, edozein lokal edo zentrotan kokatzeko aukera du, ez du toki asko behar, ixkin batean ipini eta ez da oztopo bat izango.

Bezero mota asko izan ditzakete gure produktuek baina horien artean, **garbia** den edo garbitasunaren aldeko pertsonak izan daitezke gehienak.

Adibide bezala, esan dezakegu kontsumitzaileak erosoago sentitzen direla gune garbi, txukun edo ordenatu batean eta gure produktuak hori eskaintzen du, gel -a, ketchupa eta maionesa botatzeko modu eroso eta garbiago bat.

